

## Deialdia 2025

### EUSKAL HERRIKO DANTZA LANEN KATALOGOA

Urtarrilaren 8tik otsailaren 3ra bitartean egongo da zabalik

Euskal Herriko dantza-lanen katalogoa 2013an sortu zuen Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak (ADDE). Euskal dantza-konpainien eta sortzaileen lana nazioarteko testuinguruetan ikusarazteko tresna.

Katalogoak egiten den lanaren eta gaur egun biran dauden obren ikuspegi zabala eskaini nahi du.

2025eko edizio berri honetarako, konpainia guztiek bidali beharko dute informazio guztia, baita argitaratuta daudenak eta pieza berarekin jarraitu nahi dutenak ere, katalogoa erabat berrituko baita.

#### **BETEBEHARRAK:**

- Euskal konpainia, kolektibo eta sortzaileei zuzendua.
- ADDEk eta Apricotek antolatutako nazioartekotze-ikastaroa egin izana. Halakorik ezean, nazioarteko testuinguruetan esperientzia izatea edo nazioarteko esperientzia duen banatzaile bat izatea.
- ADDEko bazkide ez diren pertsonak Euskadin izan beharko dute egoitza fiskala.
- Konpainiak, kolektiboak edo sortzaileak obra bakarra sar dezake katalogoan.
- Konpainiak berak aukeratuko du dantza-lana, eta nazioartean proiektzio handiena duena edo katalogorako egokiena dena aukeratu beharko du.
- Formularioa informazioarekin bete behar da, gaztelaniaz zein euskaraz.
- Onarpen irizpideak: Erakunde edo entitate bati laguntza eskaera egin izatea, diru-laguntzak edo egonaldiak. Eskaerarik egon ezean, konpainiaren ibilbidea baloratuko da: azken hiru urteetan ekoizpen eszeniko bat egin izana eta gainera azken hiru urteetan egindako boloen zerrenda zein hauen partaideen ibilbidea hartuko da kontuan.
- Ez da nahitanahiezkoa ADDEko bazkide izatea, baina bazkideek doan sartuko dute beren lanak eta ez bazkideek kuota bat ordaindu behar dute.

## **KUOTAK**

**Bazkideak\*: DOAN**

**Ez bazkideak: ikuskizun 1: 70€.**

ADDE-ko bazkide profesionalek 108€-ko urteko kuota bat ordaintzen dute, elkartearen parte izateagatik. Katalogoa kideentzako zerbitzu bat gehiago delarik.

**\*Konpainia edo taldeko zuzendariak izan beharko du ADDEko bazkide profesionala.**

Ez da inolako zenbatekorik ordainduko dagoeneko argitaratuta dagoen lan bat berriro argitaratzeagatik.

Euskal Herriko Dantza Lanen Katalogoa, ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearen proiektua da. Irabazi asmorik gabeko elkartea da eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntza jasotzen du.

Proiektu hau Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin egiten da.

Kuota horiek, ADDEk bere gain hartzen dituen gastuei aurre egiten laguntzen dute.

## **NAZIOARTEKOTZEARI BURUZKO ONLINE IKASTAROA**

Dantza-lan bat argitaratu ahal izateko, ezinbestekoa da nazioartekotze-ikastaroa egina izatea, konpainiak edo konpainiaren banaketa-pertsonak nazioarteko testuinguruetan esperientziarik izan ezean.

Ikastaroa egin behar baduzu, jarraitu esteka hau: [NAZIOARTEKOTZE IKASTAROA](#)

## **2025EKO OTSAILAREN 3A BAINO LEHEN BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- 1. Formularioa beteta bidali.** [Sartu formularioan.](#)
- 2. Baimena.** [Eskuratu baimena.](#) Bidali sinatutako dokumentua helbide honetara: [comunicacion@adde.dantza.org](mailto:comunicacion@adde.dantza.org)
- 3. Bideo Artxiboa.** Edizio honetan, katalogoaren laburpen-bideo berri bat egingo dugu. Bideo hau, online egoteaz gain, ikusizko euskarri gisa erabiltzen dugu aukera dugun testuinguruetan. Horregatik, bideoan parte hartu nahi duten **\*konpainia guztiak** honako hau bidali beharko dute:

Edizio honetan argitaratu nahi den lanaren 10 segunduko bideo artxiboa. Bidaltzen duzuen bideo-laburpenean ez da ez ur-markarik ez errotulurik agertu behar. Bideoa editatzeaz arduratzen den pertsonak konpainiaren eta obraren izenburua gehituko du, gainerako obrekin batera. Bideoak bistartzeko online plataformetarako estekak ez dira baliozkoak.

Honako formatu hau duen fitxategia behar dugu: .mp4 edo .mov HD 1920x1080 H264 /Appel ProRes.

Bideo fitxategia [comunicacion@adde.dantza.org](mailto:comunicacion@adde.dantza.org) helbidera bidali epea amaitu aurretik.

\* 2024ko laburpen-bideoan dauden eta mantendu nahi diren lanak izan ezik.